

Prensa oharra

Nota de prensa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko Zinegotzigoa
Concejalía de Deportes y Vida Saludable



DONOSTIA KIROLAK 3,5 MILIOIKO MARKA JARRI DU INSTALAZIOEN ERABILERAN

2023a urte ona izan da Donostia Kirolarentzat: bazkide kopuruak gora egin du eta instalazioen erabilerak ere bai.

Iñaki Gabarain Kirolak eta Bizitza Osasuntsua arloko zinegotziak, iazko Donostia Kirolaren Memoriaren aurkezpenean, nabarmendu duenez, “Donostia sendotu egiten da kirolaren hiri modura” Kirol Txartelaren bazkide egin direnen kopurua % 5,5 handitu da, eta iazko urtea guztira, 48.853 bazkiderekin amaitu zen. Igoera horretan Altzako kiroldegi berriaren irekierak zerikusi handia izan du, zalantzarik gabe. Gainera, Donostia Kirolaren instalazioen erabileran ere marka jarri da. Hala, lehen aldiz, 3.500.000 erabileren langa gainditu da, eta, 2022an aldean, % 12,5eko igoera esanahi du horrek”.

Adierazi behar da, kiroldegi berria irekita, Kirol Txartel gehien dituen bigarren auzoa dela Altza. Lehen tokian Antigua-Benta Berri dago. Paco Yoldi kiroldegiak jarraitzen du Donostian gehien erabiltzen dena izaten (453.777 erabilera), ondoren Zuhaitzi dago (363.352) eta Altzako kiroldegia hirugarren (315.259).

Azpimarratu behar da erabiltzaileek kirol-ekipamenduek ematen dituzten zerbitzuen inguruan duten pertzepzioan nota ona dela orain ere. Batez besteko balorazioa 7tik gora da, eta Kirol Elkintzak edo UDA kanpainetako ikastaroei 10etik 8 puntu lortu zituzten.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostia Kirolak 2023an antolatutako jardueretan 30.000 parte-hartzaile inguru izan ziren, pandemiaren aurretiko kopurura hurbilduz.

Eskaera gehien izan zuten kanpainak, Kirol Ekintzak (14.243 parte-hartzaile) eta Uda (12.500 parte-hartzaile) izan ziren. *Aukeran* programan, saioetan malgutasun osoz izena emateko aukera ematen duena, % 37ko igoera izan da partaidetzan. Era berean, Kirol Txarteleko bazkideentzako doako jardueren kanpainetan parte-hartzeak gora egin du.

Piztu programa oso aktiboak ez diren pertsonen zuzendutako jarduera fisikoa burutzeko preskripzio, orientazio eta aholkularitzako doako zerbitzua da, Osakidetzaren lankidetzarekin garatzen da, eta dagoeneko Donostiako osasun-zentro guztietara hedatu da, eta Osasun Mentaleko Zentroetan ere txertatu da. Programa honetan partaidetzak % 75eko igoera bortitza izan du. Hala, 1.178 pertsona artatu dira.

Kirol arloko zinegotziak Donostia Kirolak aire zabalean egiteko kirola sustatzeko eginahala nabarmendu du, aztura osasuntsu gisa. Hala, iaz, Benta Berrin parkour-pista ireki zen, eta aurten ingurune berdinean kalisteniako instalazioa inauguratu da. Legealdian zehar hiriko beste gune batzuetan antzeko ekipamendu gehiago egongo dira.

Kirol klub eta erakundeak ezinbesteko aliatu gisa

2023an Donostia Kirolak hainbat diru-laguntza bideratu ditu kirolera, guztira, 1.305.550 euro batuz (% 2 gehiago). Horien onuradun izan dira 38 ikastetxe eta 79 kirol klub.

Eskola-kiroleko lehiaketek bere partaidetza-maila mantendu dute. Hala, estimazioen arabera, ikastetxeetan matrikulatutako haurren % 70ak kirol lehiaketa ezberdinetan parte hartu du.

Kirol federatuaren esparruan, 11.000 lizentzia federatu baino gehiago zenbatzen dira kadete mailatik senior mailara arte. Emakumezkoen lizentzia federatuen portzentajeari dagokion etengabeko hazkundera nabarmendu behar da, marka berria ipini duena, guztiaren % 36an kokatuz.

Iñaki Gabarainek adierazi duen eran “emakumezkoen kirola hirian harro egoteko modukoa eta ikurra da”. Donostiak lehenengo hiria izaten jarraitzen du ranking nazionalean, maila goreneko kategorian duen talde kopuruari begira. Gauzak ondo egiten dira eta, zorionez, emakumezkoen kirolaren garrantzia eta arrakasta gero eta handiagoak dira”.

Hirian antolatutako proba herrikoietan partaidetzak gora egiten jarraitu zuen 2023an, 69.000 pertsona batuz. Horien artean Behobia-Donostia, Lilaton edo San Silbestre azpimarratu behar dira.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Nabarmendu behar da iaz, 2023an, Donostia kirol-ekitaldi garrantzitsuen eszenario izan zela, esate baterako, Frantziako Tourra, emakumezkoen pilotako Hiru Hiriburuak Txapelketa edo emakumezkoen eskubaloiko Superkopa Iberikoa. Gainera, Atano III.a pilotalekuan profesional mailako pilota-partidak berreskuratu ziren. Horiez gain, proba tradizionalak ospatu ziren, besteak beste, Donosti Cup, Lilatoia, Maratoia, Donostiako Klasikoa edo Behobia lasterketa.

Kudeaketa efiziente, arduratsu eta jasangarria

Donostia Kirolak aurrerapausoak ematen jarraitzen du bere kudeaketa-ereduaren garapenean. Horrela, esparru horretan erreferente bilakatu da, eta Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa aurreratuko aitortpena jaso duen Euskadiko udal mailako kirol zerbitzu bakarra da.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, Donostia Kirolak % 18,70ean areagotu ditu hiritarrei eskainitako kirol zerbitzuen ondoriozko diru-sarrerak. Horren ondorioz, autofinantzaketaren portzentajea % 51ra arte igo da, 2022an baino 4 puntu gehiago, nahiz eta funtzionamendu-gastuek gora egin dute, besteak beste, energian izandako garestitzea dela medio.

Donostia Kirolak gizarte-konpromisoa pertsona guztiek, beren baldintza ekonomiko edo sozialak alde batera utzita, kirola egin ahal izatea lortzera bideratutako ekimen ugarietan islatzen da, besteak beste, Kirol Txartela Sozialarekin, harrera-etxeekin erdietsitako akordioekin edota errefuxiatuak artatzen dituzten erakundeekin. Konpromiso hori balantze sozialean jasotzen da, 2023an 760.000 eurotik gorakoak izan zirenak lehen aldiz.

Ingurumen-jasangarritasunaren ardatzari dagokionez, nabarmendu behar da erregistratutako erabilera bakoitzeko energia-kontsumoa % 24 murriztu dela, eta udal instalazioetan kirol jarduerarekin lotutako CO2 emisioak % 11 murriztu direla, Yoldin eguzki-plakak instalatzeari eta energiaren efizientziari begira aplikatu diren beste zenbait neurri eskertuz.